

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**14/2023 Foru Araua, irailaren 8koa, 4/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onespena ematen da aldatzeari otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua**

Jakinarazten dut ezen Arabako Batzar Nagusiek, batzorde iraunkor gisa eraturako Barne Erregelamendu eta Gobernu Batzordearen 2023ko irailaren 8ko bilkuran, onetsi dutela eta nik aldarrikatu eta argitaratzeko agintzen dudala "irailaren 8ko 14/2023 Foru Araua, zeinaren bidez baliozkotzen baita abuztuaren 1eko 4/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena ematen diona aldatzeari otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua"; araua aplikatu ahal zaien herritar, partikular eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 8a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

### **14/2023 FORU ARAUA, IRAILAREN 8KOA, 4/2023 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, ABUZTUAREN 1EKOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ZEINAREN BIDEZ ONESPENA EMATEN DA ALDATZEARI OTSAILAREN 14KO 2/2023 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA**

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abuztuaren 1eko 4/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onespena ematen da aldatzeari otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da abuztuaren 1eko 4/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onespena ematen da aldatzeari otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 8a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*